

X. top@DIPC Zientziarekin solasean!

2018 urriak 30 | 30 octubre 2018
Eureka! Zientzia Museoa, Donostia / San Sebastián

www.topadipc.eu

Gonbidatuak

Nazioartean izen handiko hiru ikertzailek zientziarekiko eta ikerkuntzarekiko duten grinari buruz hitz egingo dute eta ikasleek egindako galderei erantzungo diete. Top@DIPC topaketen X. edizio honetako gonbidatuak hurrengo hauek dira:

- **Klaus Von Klitzing**, Fisikako Nobel Sariduna 1985- *Materia Kondentsatuaren Fisika*
- **Mairi Sakellariadou**, Uhin grabitazionalen ikertzailea- *Fisika Teorikoa eta Kosmologia*
- **María Vallet-Regí**, 2018ko Jaime I.a Erregea Saria Oinarrizko Ikerketan- *Biomaterial adimendunak*

Programa

Topaketa 10:00etan hasi eta 13:30ak inguruan bukatuko da:

- **Lehen zatia (ordu 1):** gonbidatutako ikerlarien aurkezpena: haien ezagutzarekiko grina eta zientzialari gisa izandako esperientzia.
- **Atsedena (ordu 1/2):** kafea edo hamaiketakoa.
- **Bigarren zatia (ordu 1 eta 1/2):** ikasleek galderak egingo dizkiete zientzialariei; galderak zozketaz aukeratutako dira han bertan.

Nahi dutenentzat, aldibereko interpretazio zerbitzua eskainiko da.

Parte hartzeko Baldintzak

- **Parte har dezaketen ikastetxeak:** Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak.
- **Parte-hartzaileak:** Ikastetxe bakoitzetik irakasle bat eta lau ikasle. (Gainontzeko ikasleek saioa zuzenean jarraitzeko aukera izango dute dipc.tv atarian.)
- **Ikasleen ezaugarriak:** 2018/2019 ikasturtean DBHko 4. maila edo batxilergo zientifikoko bi mailetatik edozein egiten ari diren ikasleak.
- **Ikastetxeek parte hartu ahal izateko bete beharreko baldintzak:** 2018ko irailaren 21era arte, www.topadipc.eu webgunean aurrez izena ematea. Onartutako ikastetxeek posta elektronikoz jasoko dute parte-hartzearen baieztapena. Baieztapena jaso ostean, topaketen parte hartuko duten ikasleen izenak eta zientzialariei egin nahi dizkieten galderak, urriaren 5a baino lehen bidali beharko dira, baieztapen mezuan bidaliko diren argibideak jarraituz.
- **Parte hartuko duten ikastetxeak aukeratzeko irizpideak:** Parte-hartzaileen aukeraketa izen-ematearen ordena jarraituz egingo da, aurreikusitako edukiera bete arte (gutxi gora-behera 300 pertsona).

Informazio gehiago jasotzeko, info@topadipc.eu posta elektronikoko bidez jar zaitezke gurekin harremanetan.

Ekimen hau Donostia International Physics Center-ek (DIPCK) antolatzen du.

Ezagutu gaitzazu: <http://dipc.ehu.eus/>